



**JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO JAUNAK, HERRI
ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURU ETA EUSKO
JAURLARITZAREN IDAZKARI NAIZEN HONEK,**

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak besteak beste erabaki hau hartu zuela 2013ko ekainaren 25ean egindako bilkuran:

**ERABAKI-PROPOSAMENA, JAURLARITZAREN KONTSEILUARENA,
2012-2016 X. LEGEALDIRAKO LEGEGINTZA-EGUTEGIA ONARTZEN
DUENA.**

Legegintza-egutegia Gobernuaren lege-mailako esku-hartzearen esparruan plangintza-printzipioa gauzatzen duen tresna bat da, berekin helburuak jartzea, lehentasunak zehaztea eta arauak ekoizteko bitartekoak erabakitzea ekartzen baitu.

Dokumentu honek era integratzaile, garden eta errealitateari egokitan jaso nahi du zer egin behar duen Gobernuak bere politika gauzatzeko, legegintza-ekimena beharrezkoa denean. Dokumentua legebiltzarrari helaraziko zaio hark gobernu-jarduera horren jarraipena egin dezan, aldez aurreko fasetik edo plangintza-fasetik hasita, gobernu honek administrazio eraginkor eta gardenean aurrera egiteko konpromisoa bete dezan, eta, horrenbestez, baliabide publikoen kudeaketa moderno eta arduratsua egin dezan, lehendakariak 2013ko maiatzaren 9an Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran agertu zenean iragarritakoarekin bat etorrita.

Plangintza-tresna honek dokumentu dinamikoa izan behar du, berriz diseinatu, egokitu eta hobetu egingo dena behar berrien arabera gerta daitezkeen aldaketen eraginez, eta legegintzaldian gertatzen direnengatik nahitaezko diren legegintza-ekimenen zentzuzko egokitze, jasotze edo bereizte-eginkizuna bete ahal izateko moduan taxutu da.

Hitz batean, Gobernuak bere jarduera-ildoetan finkatutako helburuak legegintzaldian lortzeko beharrezko legegintza-ekimenen garapen koordinatua da dokumentuaren xedea.

Bestalde, hasiera batean onartzen den egutegiaren balioa legegintzaldi osora zabaltzeko neurriarekin bat dator egutegia betetzearen jarraipena eta ebaluazioa egitea, Gobernuak berak honi dagokionez hasieran hartutako konpromisoak zer bilakaera izaten ari diren jakin dezan, betiere aldizkako jarraipen hori unean uneko egokitzapenak, egin behar badira, gauza daitezen traba izan gabe.



Hortaz, ezarri nahi den sistemak gobernamendu hobean oinarritutako politika sustatzeko nahia gauzatu nahi du esparru honetan, administrazio-jarduera horren jarraipen, kontrol eta ebaluazioaren bidez.

Horrenbestez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko apirilaren 9an hartutako Erabakian jasotakoaren arabera, lehendakariak proposatuta eta aztertu ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak hau erabaki du:

ERABAKIA

Lehena.- “2012-2016 Legealdirako Legegintza Egutegia” onartzea; bertan, honako hauek daude: I. eranskina –Legegintza Proiektuen Zerrenda– eta II. eranskina – Informazio-fitxen dokumentua–.

Bigarrena.- Eusko Legebiltzarrera igortzea onartutako legegintza-egutegia, gobernu-jardunaren jarraipen egokia egiteko.

Hirugarrena.- Gobernuko sailek, sei hilean behin, legegintza-egutegian jasotako konpromisoak betetzeari edo, hala egokituz gero, aldatzeari buruzko azalpen-txostena igorri beharko dute Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusira, jarraipena eta ebaluazioa egiteko”.

ERABAKIAREN ERANSKINAK:

I. ERANSKINA – LEGEGINTZA PROIEKTUEN ZERRENDA –

II. ERANSKINA – INFORMAZIO-FITXEN DOKUMENTUA –.



I. ERANSKINA

X. LEGEGINTZALDIA LEGEGINTZA (2012-2016)

PROIEKTUEN ZERRENDA

1. HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA	1. Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen Legea	2014ko lehen seihilekoa
	2. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legea	2014ko bigarren seihilekoa
	3. Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko Legea	2014ko bigarren seihilekoa
	4. Enplegu Publikoaren Legea	2014ko bigarren seihilekoa
	5. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Legea	2014ko lehen seihilekoa
2. EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA	6. Merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen hirugarren aldaketaren Legea	2014ko lehen seihilekoa
	7. Emakume Nekazarien Estatutuaren Legea	2014ko lehen seihilekoa
	8. Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea aldatzeko Legea	2014ko lehen seihilekoa
3. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA	9. Enpleguaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2015eko lehen seihilekoa
	10. Kooperatiben Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2014ko lehen seihilekoa
	11. Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2014ko bigarren seihilekoa



4. OGASUN ETA FINANTZA SAILA	12. Dirulaguntzen eta Laguntzen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2015eko lehen seihilekoa
	13. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretua aldatzeko Legea	2015eko lehen seihilekoa
	14. Baliabideen banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru aldundien ekarpenak zehazteko metodologiaren legea, 2014-2018 urteetako aldiari aplikatzeko	2014ko lehen seihilekoa
	15. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen ekainaren 14ko 11/2012 Legea aldatzeko Legea	2014ko lehen seihilekoa
	16. 2014-2017 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Planaren Legea	2014ko lehen seihilekoa
5. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA	17. Lanbide Heziketaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2015eko bigarren seihilekoa
	18. Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2015eko lehen seihilekoa
	19. Agirien eta Agiritegien Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2015eko lehen seihilekoa
	20. Kirol-lanbideak betetzearen gaineko Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2015eko lehen seihilekoa



6. SEGURTASUN SAILA	21 Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea aldatzeko Legea	2014ko lehen seihilekoa
	22. Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzeko Legea	2014ko lehen seihilekoa
	23 Suteen Prebentzio eta Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak Arautzeko Legea	2014ko bigarren seihilekoa
	24 Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea	2014ko lehen seihilekoa
	25 Poliziaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2015eko lehen seihilekoa
7. OSASUN SAILA	26 Adikzioen Legea	2014ko bigarren seihilekoa
8. INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA	27 Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babeslari buruzko Lege Orokorra	2015eko bigarren seihilekoa
	28 Lurzoruaren kutsadura ekidin eta zuzentzeko Legea	2015eko lehen seihilekoa
	29 Portuen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2015eko lehen seihilekoa



X. LEGEGINTZALDIA LEGEGINTZA (2012-2016)

II. ERANSKINA

INFORMAZIO-FITXEN DOKUMENTUA.

1.- HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALEN LEGEA.

b.- Proposatutako erregulazioaren xedea eta, gertatuz gero, eragindako gizarte-sektoreak:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren antolaketa politiko eta administratiboaren erregulazioa osatzea, udalerrien eta haien lurralde-esparruan kokatutako gainerako toki-erakundeen araubide juridikoaren lege-finkapenaren bidez.
- Osorik mugatzea EAEko erakunde erkideek eta foru-esparrukoek udal-esparruari dagokionez osatzen duten erakunde-, eskumen- eta harreman-egitura.
- Behar bezala egokitzea tokiko autonomia-printzipioa foru-mailako autonomia-esparruekin eta EAEko erakunde erkideen autonomiarekin, EAEko herri-administrazioak oro har efikazak eta eraginkorrak izan daitezen herritarren premiei erantzutean.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Erakundearteko koordinazio- eta lankidetzeta-sistema bat prestatzea, udal-mailan garatu behar diren edo maila horrek parte hartzea beharrezko duten herri-politikak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko.
- Udal-eskumenen araubidea eta haien erabileran finantza-nahikotasuna bermatzeko lege-esparrua ezartzea, udalerriek EAEko herri-finantzaketako sisteman nola parte hartu behar duten zehaztuz.
- Tokiko gobernuek udalerrien herri-kudeaketarako dauzkaten tresnak zehaztea.
- Herritarrek tokiko kontuetan parte hartu ahal izateko tresnak finkatzea.

b.3.) Inplikaturako gizarte-sektoreak:



- Toki Administrazioa.
- EUDEL (Euskadiko Udalerrien Elkarte).
- Foru Aldundiak.
- Herritarrak, oro har.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Azterketa-fasean erabakiko da.

d.- Gutxi gorabehera noiz aurkeztuko zaion Jaurlaritzaren Kontseiluari eta, gero, noiz igorriko den Eusko Legebiltzarrera.

2014ko lehen seihilekoan.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEI BURUZKO LEGEA.

b.- Proposatutako arauketaren xedea eta, gertatuz gero, eragindako gizarte-sektoreak:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Gaur egun fundazioei buruz indarrean dagoen arautegia (12/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa eta hura garatzeko xedapenak) egungo errealitate soziologikora egokitzea, bai eta fundazioen sektorean bertan dauden eskaeretara ere, esparru juridiko berria eta eraginkorra behar baitu, erakunde-egitura berriei erantzuteko.
- Fundazioei buruzko indarreko legea indarrean jarri zenean, fundazioak gehienbat ongintzazkoak ziren: fundatzaileak bere ondasunak modu altruistan ematen zizkion irabazi-asmorik gabeko erakunde bati.
- Garai hartan, lege hori aurrerapauso handia izan zen, baina duela zenbait urte fundazio-mota berriak sortzen hasi ziren: teknologikoak, banku-esparrukoak, herri-sektorekoak eta abar. Fundazio horiek egitura konplexua dute, eta erregulazio espezifikoak ez ezik, zenbait sektoreren kontrola ere beharrezkoa dute.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Testu bakar batean jasotzea Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzko arautegi osoa: Fundazioei buruzko 50/2002 Legearen aplikazio oinarritzak eta orokorra egiteko artikulak, erkidego-legedia eta abar.



- Herri-administrazioari babes-tresna eraginkorrak ematea egokituta daukan interes orokorreko helburuak betetzearen kontrol-, aholkularitza- eta prebentzio-lana egin dezan; horretarako neurriak administrazioaren esku-hartzea sustatzean zaindu beharreko malgutasun- eta liberalitate-esparruaren barruan hartu beharko dira.
- Esku-hartze publikoa erregulatzea fundazioen eraketan eta haietan parte-hartzean, jarduera pribatuen eta herri-agintea baliatzeak berezko dituen muga artean beharrezko oreka ziurtatuz.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, hartako Administrazio Instituzionala eta horren mendeko zein atxikita dauzkan gainerako erakunde instrumentalak. Eskumena duten sailak, fundazio bakoitzaren gaiaren arabera.
- Beste herri-administrazio batzuk, eta haien mendeko erakundeak: aldundiak, udalak eta abar.
- Herri-sektoreko beste erakunde batzuk.
- Finantza-erakundeak.
- Fundazioak eta hirugarren sektorea deritzonako beste erakunde batzuk: elkarteak, kooperatibak...
- Merkataritza-baltzuak. Enpresaburu indibidualak.
- Notarioak, erregistratzaileak.
- Fundazioen jarduerarekin zerikusia duten profesional liberalak, hala nola abokatuak, ekonomialariak, auditoreak eta, oro har, finantza- eta administrazio-kudeatzaileak; bai eta erakunde horien bidez garatzen diren gaietan diharduten beste profesional batzuk ere.
- Herritarrak oro har, fundazioen interes orokorreko lanaren sustatzaile eta/edo onuradun diren aldetik.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Egiaztatzeko zain izapidetu bitartean.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko bigarren seihilekoa.

3.- Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko Legea.

a.- Izena: EUSKO JAURLARITZAKO ZERBITZU JURIDIKOA ANTOLATZEKO



LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra epaiketari ordezkatu eta defenditzeari buruzko araudia eguneratzea, egungo garai eta beharretara egokituta (indarrekoa 1986koa da).

b.2.) Beste helburu batzuk:

Eusko Jaurlaritzako sailetan aholkularitza juridikoa ematen duten bitarteko pertsonalen berrantolaketa funtzionala, haien eraginkortasuna eta errendimendua hobetzeko eta haietan guztietan irizpide komuneko unitate bat ezartzeko.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

Legeak barne-eragina dauka, eta eduki tekniko hutsa, ez dugu aurkitzen inolako gizarte-eragozpenik, eta bere eragina Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileei soilik egokitzen zaie.

c.- Finantzeta ustez izango duen eragina:

Sortuta dauden bitarteko pertsonalen berrantolaketa eta berregituraketa denez, ez du finantza-eraginik izango, edo, bestela, baldin badu, oso-oso txikia izango da.

d.- Legebiltzarrerara bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko bigarren seihilekoa.

4.- Enplegu Publikoari buruzko Legea.

a.- Izena: ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Euskadiko enplegu publikoaren araubide juridikoa antolatzea eta zehaztea, oinarriko legedian aurreikusitako taxutze-tarteen barruan, eta Euskadiko Autonomia Estatutuan eta Konstituzioan aitortutako eskumenen arabera.



- EAEko herri-administrazioetan enplegu publikoa kudeatzeko aplikatu daitezkeen tresnak garatzea.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- EAEko herri-administrazioen arrazionalizatzeko eta modernizatzeko prozesua gauzatzea.
- Arautegi autonomikoa 7/2007 Lege, apirilaren 12ko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzekoak ezarritako oinarrizko arau-esparru berrira egokitzea, bereziki egiturazko gaietara lotutako alderdi guztietara dagokienez, edo enplegu publikoaren erlazioetan alde objektiboa duten dagokienez: zuzendaritza publiko profesionala, enplegu publikoaren antolaketa eta egitura, lanaren ebaluazioa, lanpostuak betetzeko sistema eta ordainsari-sistema.
- Enplegu publikoaren berezko ereduaren zehaztea.
- Arau-esparru komun bat ezartzea enplegu publikoaren alorrean, gobernuaren lurralde-maila guztietan aplikatu ahal izango dena, foru- eta toki-autonomia ez ezik, lurralde-gobernu bakoitzaren arau- eta antolaketa-eskumenak ere errespetatuko dituen.
- EAEko enplegu publikoak pausoz pauso hurbilketa-prozesu baterantz aurrera egiteko oinarriak finkatzea, gobernu-maila bakoitzaren berezitasunak baztertu gabe.
- Lana ebaluatzeko sistema bat ezartzea; sistema hori tresna garrantzitsua izango da kudeaketa hobetzeko eta enplegatu profesionalen lanpostuetako zereginetan eta jokabide profesionalen garapen profesionala egiaztatzeko.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
- Foru- eta toki-administrazioak.
- Herri-administrazioetako erakunde instrumentalak, kontsultarakoak eta parte-hartzaileak.
- Eusko Legebiltzarra eta batzar nagusiak.
- Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Herritarrak, oro har.

c.- Finantzatan ustez izango duen eragina:

Aztertze-aldian zehaztuko da.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.



2014ko bigarren seihilekoa.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRI
ADMINISTRAZIOAREN LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

EAEko sektore publikoa modu ordenatuan eta kohesionatuan erregulatzea; sektore publiko hori Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu-, autonomia-, foru- eta toki-mailek beren herri-politikak gauzatzeko baliatzen dituzten herri-administrazioek, erakunde autonomiadunek, zuzenbide publiko edo pribatuko erakunde publikoek, sozietate publikoek eta gainerako erakunde instrumentalek osatzen dute, eta haiek guztiek indarreko legedia guztiz betetzen dihardute, bai eta interes orokorraren eta guztien ongiaren alde ere.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Berezko nortasun juridikoko erakunde instrumentalak sortzeko, sustatzeko eta haietan parte hartzeko beharrezko irizpide zehatzak erabakitzea.
- Erakunde instrumentalak sortzeko edo haietan parte hartzeko akordiorako gutxieneko edukiak zehaztea.
- Erakunde instrumentaletako zuzendaritzako postuen zer-nolakoa zehaztea, eta arau komunak erabakitzea erakunde instrumentalek langileak kontratatzeko.
- Erakunde instrumentalen fiskalizazioa eta haien kudeaketaren erantzukizuna erregulatzea.
- Jarduera-planak eta EAEko Sektore Publikoa ezaugarritzen duten antolaketa-elementuen efikazia eta eraginkortasuna kontrolatzeko neurriak ezartzea, datu egiaztagarriak eta, haien jarduera instituzionalari dagokionez, informazio gardena eman ditzaten.
- Antolaketa-neurriak hartzea, informazioa eskuratzeko eta parte hartzeko eskubidea bermatzeko.
- Herritarrek parte hartzeko protokoloak eta tresnak ezartzea.

**b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:**

- EAEko Sektore Publikoko kideak.
- Herritarrak, oro har.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Azterketa-fasean erabakiko da.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.



2. EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

6.- Merkataritza-jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen hirugarren aldaketaren Legea.

a.- Izena: MERKATARITZA-JARDUERARI BURUZKO MAIATZAREN 27KO 7/1994 LEGEAREN HIRUGARREN ALDAKETAREN LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Egungo legean turista asko hartzen dituzten inguruen erregulazioa sartzea, eta haien deklaraziorako administrazio-prozesua zehaztea.
- Gaur egun arte, Euskal Autonomia Erkidegoan, merkataritza-ordutegiaren erregulazioan ez zegoen inolako aipamenik inguru horiei buruz. Udalen batek horrelako inguruen estatusen egoteko interesa zuela jakitean, prozesua erregulatzeko beharra sortu da.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Merkataritza-antolaketaren erregulazioa osatuz joatea, eta kontuan hartzea zer behar berri dituen sektoreak eragiten dion errealitate ekonomikora egokitzearen prozesuan.
- Merkataritza-ordutegiak araudi bidez berriz erregulatzeko aukera ematea, eta izapidea azkartzea.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Txikizkako merkataritza-banaketaren sektorea.
- Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak.
- Beste herri-administrazio batzuk; batez ere toki-erakundeak, beren proposamenaren bidez deklarazio-prozesua abiarazi baitute.

c.- Finantzatan ustez izango duen eragina:

Ez da aurreikusten eragin ekonomiko zuzenik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio honetarako.



d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.

7.- Emakume Nekazarien Estatutuaren Legea.

a.- Izena: EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTUAREN LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Emakumeek nekazaritza-sektorean, batez ere haien aitortze profesionalari eta gizarte-balioespenari dagokienez, jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko premiaren ondorio da Estatutua. Ustiatuegi jabe diren emakumeen proportzioa ez dator bat emakumeek haietan benetan egiten duten lanarekin; izan ere, askotan, lan horiek ikusezinak dira. Emakume nekazariak titulartasuna eskura dezaten sustatzea da lege honen lehentasunetako bat, haien lana ikusarazteko eta emakumeek lan horren ondorio diren eskubide guztiak lortu ahal izateko.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Emakumeek nekazaritza-esparruan erabakitzeko organoetan duten parte-hartzea sustatzea, gizonak daukatena baino askoz txikiagoa delako.
- Esparru publikoan duten partaidetzan emakumeek jasaten dituzten ezberdintasunei aurre egitea ezinbestekoa da, nekazaritzaren arloan emakumeen eta gizonen arteko egiatzko berdintasuna erdiesteko. Era berean, nekazaritza-sektoreko elkarteetako zuzendaritza-organoetan duten parte-hartzea sustatu nahi da.
- Emakumeen eta gizonen osasunaren gaineko faktore bereizgarriak aintzat hartzea, eta nekazaritzako lanean emakumeen osasuna bermatzeko neurri egokiak hartzea.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Nekazaritza-sektorea eta, bereziki, emakume nekazariak.
- EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeak.
- Nekazaritza-esparruan diharduten lanbide-, enpresa-, sindikatu-elkarteak eta -



erakundeak, hala nola bestelako elkarte eta erakundeak.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

- Emakumezko Nekazarien Estatutuak zeharkako eragin ekonomikoa dauka. Izan ere, Legeak berak kontusail ekonomiko espezifikorik ez izan arren, aldaketa ekonomikoak zehazten dira haren garapenean. Hortaz, lege honen ondorioz aldatu beharreko laguntza-programen dekretu erregulatzailerik jasoko dute kasuan kasuko txosten ekonomikoetan aurreikusitako eragin ekonomikoa. Nolanahi ere, aurreikusitako neurriek ez dakarte berekin gastua handiagoa izatea, banaketa-irizpideetan aldaketak egitea baizik.
- Gizarte Segurantzaren afiliatzeagatik laguntzak ematea aurreikusten da, baina ez da zehazten zer administrazio arduratuko den haietaz, ez eta zenbatekoak izango diren ere. Orientazio gisa, esan daiteke beste autonomia-erkidego batzuetan kuotaren %20ko laguntza aurreikusten dela; muturreko kopuruak Nafarroan 60.000 € eta Extremaduran 1.000.000 € dira.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.

8.- Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea aldatzeko Legea.

a.- Izena: ANIMALIAK BABESTEKO URRIAREN 29KO 6/1993 LEGEA ALDATZEKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Gaur egungo legearen babes-eremua zabaltzea; gaur egungo legeak etxe-abereak eta lagun egiteko animaliak babesten ditu, batez ere, eta lege-proiektu berrian errenta eta produkzioko animaliak, zirkukoak eta ikuskizunetarakoak eta esperimentaziokoak ere sartu nahi dira.
- Abeltzaintzako ustiattegietan, animalien garraioan, hiltegietan eta antzekoetan animalien ongizatea babesteari lege-maila ematea.

b.2.) Beste helburu batzuk:

**b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:**

- Abeltzaintza-sektorea, animalien garraioa, ikuskizunak eta ikerketa, besteak beste.
- Herritarrak, oro har; eta animalien jabeak, bereziki.
- Beste administrazio publiko batzuk.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Ez da aurreikusi ekonomian eragin zuzena izango duenik.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.



3. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

9.- Enpleguaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

a.- Izena: ENPLEGUAREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu politikaren helburuak eta printzipio gidariak finkatzea. Politika horren azken xedea hau da: enplegu-mailak, -egonkortasuna eta -kalitatea handitzea, pertsonen enplegarritasuna eta laneratzea areagotzea, eta enplegu-politika aktiboak planifikatzeko eta garatzeko egiturak eta tresnak erregulatzea.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Eragile publikoen eskumenak eta haien arteko koordinazio-kasuak zehaztea, hala nola erakunde laguntzaileen parte-hartzea.
- Lan-bitartekotzarako eta enplegu-politika aktiboetarako eredia garatzea.
- Gizarteak parte hartzeko eredia egituratzea parte hartzeko eta kontsultarako organoen bidez.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Lan egiteko adinean dauden pertsonak, bereziki langabeak, aktiboak izan gabe aktibo izan daitezkeenak eta enplegu prekarioa dutenak edo enplegua galtzeko arriskuan daudenak.
- EAEko enpresak.
- Enpleguaren esparruan esku hartzen duten EAEko erakunde publikoak.
- EAEko enpresa-erakundeak.
- EAEko sindikatuak.
- Enpleguaren esparruan esku hartzen duten beste erakunde batzuk; besteak beste, enplegu-agentzia pribatuak, enplegu-zentro bereziak, laneratzeako enpresak, unibertsitateak, lanbide-heziketako zentroak eta beste ikastetxe publiko zein pribatu batzuk.



c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Aldez aurretik ez da identifikatzen inolako finantza-gorabeherarik.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko lehen seihilekoa.

10.- Kooperatiben Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

a.- Izena: KOOPERATIBEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Legegintza-proiektuaren oinarritzko arazoia ekainaren 24koa, 4/1993 Legea aldatuz joan diren lege-testuak elkartzea da, sistematikotasun-arrazoiengatik, errazago identifikatzeagatik eta indarreko araua erabiltzeagatik.
- Beharrezkoa da beste bateratze-lan bat ere egitea, lege-gorputzaren interpretazio koherentea egiteko, edo argitzeko, beste kasu batzuetan.
- Alderdi batzuk berrituko dira, urraketei eta zigorrei dagozkienak (ikuskaritza-funtzioa barne), etxebizitza-kooperatibismoari buruzkoak eta alderdi zehatzen gainekoak (administrazio-isiltasuna erregistro-arloan eta abar).

b.2.) Beste helburu batzuk:

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legea aplikatzen zaien kooperatibak.
- EAEko mugimendu kooperatiboa, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioan antolatua; bertan daude Lan Elkarteen, Kontsumo, Irakaskuntza, Kreditu, Nekazaritza eta Garraiolarien Kooperatiben Federazioak.
- Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Ez da aurreikusi ekonomian eragin zuzena izango duenik.



d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.

11.- Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

a.- Izena: HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskadin, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen estatutua erabakitzea, aurrera egitea haien identifikazioan ekimen eta esku-hartze sozialeko erakunde gisa, irabazi-asmorik gabeko sektorea delako definiziotik harago joanda, eta haien gizarte-ekarpenaren garrantzia, bereziki politika sozialen esparruan, eta haietan parte-hartze aktiboa izateko duten eskubidea onartzuz.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Hirugarren sektore sozialaren eta sektore publikoaren, hala nola sektore sozialaren eta enpresa-sektorearen arteko lankidetzeta-mekanismoak sistematizatzea eta sendotzea, sektoreen arteko intersekzio- eta lankidetzaguneen definizioan aurrera eginez.
- Araudian finkatzea hirugarren sektore sozialaren eta sektore publikoaren nahiz sektore sozialak egun diharduen edo jardun beharko lukeen beste gizarte-eragileen arteko bitartekotza-guneak.
- Herri-administrazioek eta beste gizarte-eragile batzuek hirugarren sektore soziala sustatzeko tresnak eta politikak sistematizatzea eta indartzea.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Hirugarren Sektore Soziala: ekimen eta esku-hartze sozialeko erakundeak, gizarte-esparrukoak (familia-elkarteak, zaharrak, gazteak, emakumeak, etorkinak, gizarte-ekintza eta garapenerako nazioarteko laguntza, besteak beste).
- Sektore publikoa: EAEko legegintza-organoak eta herri-administrazioak.
- Enpresa-sektorea: enpresak eta enpresa-erakundeak.



c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

- Onartu nahi den arauak, zer xede duen kontuan hartuta, ez dauka finantza-eragin handirik, ezar daitezkeen egungoak ez bezalako sustapen-neurri edo mekanismoak alde batera utzita.
- Nolanahi ere, azterketa-fasean zehaztuko da.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko bigarren seihilekoa.



4.- OGASUN ETA FINANTZA SAILA

12.- Dirulaguntzen eta Laguntzen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

a.- Izena: DIRULAGUNTZEN ETA LAGUNTZEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Laguntzen eta dirulaguntzen araubide orokorra Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gai moduan berariaz erregulatzea.
- Administrazioaren dirulaguntza-jarduera berrantolatzea, kontuan hartuta indarreko araudiaren aplikazioan orain arte pilatutako esperientzia.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Dirulaguntza-jardueraren erregulazioa oinarrizko araudira (38/2003 Lege, azaroaren 17ko, Dirulaguntzei buruzko Orokorra) egokitzea.
- Gardentasuna ziurtatzea dirulaguntzak eta laguntza publikoak emateko prozeduran.
- Eraginkortasun- eta efikazia-mailak handitzea dirulaguntzen arloko gastu publikoaren kudeaketan.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Herri-administrazioak.
- Herritarrak, oro har.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Ez da uste finantzetan eragin zuzena izango duenik.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko lehen seihilekoa.



13.- Euskadiko aurrekontu- araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretua aldatzeko Legea.

a.- Izena: EUSKADIKO AURREKONTU- ARAUBIDEAREN ARLOAN INDARREAN DIREN LEGE-XEDAPENEN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO FUNDAZIO ETA PARTZUERG OEI APLIKATU BEHARREKO AURREKONTU-ARAUBIDEA ARAUTZEN DUEN MAIATZAREN 24KO 1/2011 LEGEGINTZAKO DEKRETUA ALDATZEKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Aurrekontu-araudian printzipio hauek sartzea: aurrekontu-egonkortasuna, finantza-iraunkortasuna eta urte-aniztasuna.
- Aurrekontu-prozedura Europar Batasunaren erregelamenduzko erregulaziora egokitzea eta moldatzea.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Ziurtatzea kontabilitateak, aurrekontuek eta haien likidazioek daukaten informazioa behar adinakoa eta egokia dela EAEko Administrazioaren eta haren mendeko erakundeen finantza-egoera egiaztatu ahal izateko.
- Ekonomia- eta finantza-informazioaren erabilgarritasun publikoa bideratzea, eta Parlamentura bidalitako informazioaren kalitatea handitzea.
- Gastu publikoaren arloko politikak urte anitzeko plangintza-, programazio- eta aurrekontu-esparru batean kokatzea, egoera ekonomikoa eta politika ekonomikoaren helburuak kontuan hartuta.
- Baliabide publikoen kudeaketa eraginkortasun, efizientzia, ekonomia eta kalitaterantz bideratzea.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

Legeak, funtsean, antolaketa izango du eragina, eta barne-aplikaziokoa izango da. Gainera, lege horrekin Parlamentuaren eta gizartearen aurrean gardenago agertzea espero da.



c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Ez da uste finantzetan eragin zuzena izango duenik.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko lehen seihilekoa.

14.- Baliabideen banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru aldundien ekarpenak zehazteko metodologiaren legea, 2014-2018 urteetako aldiari aplikatzeko.

a.- Izena: BALIABIDEEN BANAKETARAKO ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTUAK FINANTZATZEKO FORU ALDUNDIEN EKARPENAK ZEHAZTEKO METODOLOGIAREN LEGEA, 2014-2018 URTEETAKO ALDIARI APLIKATZEKO.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko finantza-harremanen erreferentzia-esparrua eguneratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 41.2 artikuluko e) idatz-zatiko baldintzak betez.

b.2.) Beste helburu batzuk:

Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketaren ondorio diren baliabideak 2014-2018 bosturtekorako EAEko erakunde publikoen artean banatzeko metodologia zehaztea. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan erabakita, 27/1983 Lege, azaroaren 25eko, autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko jardute-erakundeen arteko harremanei buruzkoan, 22. artikuluan, xedatutakoaren arabera.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Foru-aldundiak.
- Udalak.
- Herritarrak, oro har.

**c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:**

- Ez da aurreikusi ekonomian eragin zuzena izango duenik.
- Legea indarrean sartzean zehaztuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunek erabilgarri dituzten baliabideak; eta, zeharka, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako erakunde publikoenak.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.

[15.- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen ekainaren 14ko 11/2012 Legea aldatzeko Legea.](#)

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREZKI KUTXEN EKAINAREN 14KO 11/2012 LEGEA ALDATZEKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki kutxei buruzko egungo araudia arlo honetan Estatuan etorkizunean egongo den oinarrizko arautegira egokitzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko banku fundazioen araubide juridikoa erregulatzeko, Estatuan arlo honetan dagoen oinarrizko araudiaren arabera.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Aurrezki-kutxen eta banku-fundazio izeneko erakunde juridiko sortu berrien finantza-jarduera ikuskatzeko araubidea egokitzea.
- Espainiako finantza-sektorearen berregituraketak haren guztizko aldaketa ekarri du eta, praktikan, aurrezki-kutxak gaur egun arte ulertu diren bezala desagertzea eragingo du. Egoera horrek ezinbesteko du gure ordenamendu juridikoa testuinguru berrira egokitzea.
- Era berean, banku-fundazio izeneko erakunde juridikoak sortu berri izanak fundazio horien babesa EAEko Fundazioei buruzko Legearen barruan bateragarri egitea eskatuko du.

**b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:**

- Aurrezki-kutxak.
- Foru-aldundiak.
- Udal-administrazioa.
- Ezarleak.
- Inbertitzaileak.
- Langileen ordezkari diren sindikatu-elkarteak.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Ez da uste finantzetan eragin zuzena izango duenik.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.

[16.- 2014-2017 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Planaren Legea.](#)

a.- Izena: 2014-2017 ALDIRAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATISTIKA PLANAREN LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera antolatzea 2014-2017 laurtekoan. Plana legez onartzen da, eta Euskal Estatistika Erakundea/EUSTATEk, Jaurlaritzako sailek eta ekintza-mailako estatistika-organoeak (foru aldundiek nahiz udalek) indarraldian egin beharko dituzten estatistika-eragiketak eta estatistika-jarduerak hartzen ditu barruan.

b.2.) Beste helburu batzuk:

Kalitateko informazio estatistikoa emateko sistema bideratzea, arriskuak ahalik eta txikienak izan daitezen politika publikoen plangintzan, eta haiek ebaluatu ahal izateko.

**b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:**

- Herri-administrazioak.
- Gizarte-eragileak.
- Informazio estatistikoa eskatzen duten politika publikoak ematean tartean diren kolektibo sozialak.
- Herritarrak, oro har.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

2013. urteko 80 milioi euro laurtekorako, neurri homogeneoetan kostua txikiagoa izanik aurreko planetan baino.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.



5.- HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

17.- Lanbide Heziketaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

a.- Izena: LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Kalifikazioen, Lanbide Heziketaren eta Orientazioaren Sistema Integratua antolatzea, enpresen eta pertsonen behar guztiak modu orokorrean eta malguan batera ditzan, lanbide-heziketako modalitate guztiak barne hartuz (bai hezkuntza-sistemakoa, bai enplegurako lanbide-heziketa), ikasteko eta lanbide-gaitasuna lortzeko era guztiak onartuz eta bultzatuz, eta bere neurri eta ekintza guztiak adin aktiboan dauden pertsona guztiei zuzenduz.

b.2.) Beste helburu batzuk:

Kalifikazioen, Lanbide Heziketaren eta Orientazioaren Sistema Integratua honako helburu hauek lortzeko eratu eta orientatu egingo da:

- a) EAEko ekonomiaren lehiakortasunaren eta pertsonen enplegarritasunaren hobekuntza sustatzea, produkzio-sektoreek lanbide-kalifikazioari dagokionez dauzkaten beharrak betez.
- b) EAEko administrazioek kalifikazioetan, prestakuntzan eta lanbide-orientazioan daukaten politikaren zuzendaritza estrategikoagoa, koordinatuagoa eta eraginkorragoa izan dadin laguntzea, politika hori ekonomiaren lehiakortasunari eta pertsonen nahiz enpresen beharrei estu lotuz.
- c) Enpresa-erakundeen eta sindikatuen artean beharrezko adostasuna eta lankidetzeta lortzea kalifikazioen garapenean, prestakuntzan eta gazteen nahiz helduen lanbide-orientazioan.
- d) Lanbide Heziketako zentroi estaldura ematea, bestelako egitura- eta antolaketa-mota izan ahal izateko, etorkizunerako behar berrietara egokitua.
- e) Beharrezko ezagutzen eta gaitasunen garapenean laguntzea, hala nola biztanle aktibo guztien lanbide-kalifikazioen garapenean eta iraupenean.
- f) Aukera eta hautu egokiak ziurtatzea, pertsonak eta enpresek izan beharreko kalifikazioak, prestakuntza eta lanbide-orientazioa lortzeko.



- g) Pertsonen eta enpresen prestakuntza- eta kualifikazio-ahaleginen eraginkortasunean eta baliatze hoberenean laguntzea, informazio eta lanbide-orientazio egokiaren bidez.
- h) Kualifikazioak, prestakuntza eta lanbide-orientazioa kalitate-maila handikoak izan daitezen lortzea, hala nola homologagarriak Europako testuinguruan, eta funtsezko bide moduan hautemanak, pertsonen eta produkzio-erakundeen aurrerapenerako.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Herritarrak.
- EAEko Administrazioa (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila).

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Azterketa-fasean erabakiko da.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko bigarren seihilekoa.

18.- Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

a.- Izena: KULTURA ONDAREAREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

EAEko gizarteari arautze-tresna eguneratua, osoa eta sistematizatua ematea, kultura-ondareaz ikuspegi zabalagoa izatea ekar dezan, eta ezartzen duen kudeaketa-ereduak erantzun efikaz eta eraginkorra eman diezaien EAEko kultura-ondarearen babes-, kontserbazio- eta hedapen-beharrei.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Babestu, kontserbatu eta hedatu beharreko kultura-ondasunen kategoriak zabaltea, gure ondare immaterialaren babes bereziki indartuz.



- EAEko kultura-ondarea osatzen duten ondasunen babes-prozedura eta - araubidea erregulatzea, haien tramitazioa azkartzeko eta babesa ondasunari balioa ematearekin bateratzeko.
- Hirigintza-plangintzako tresnek kultura-ondarea zaintzen dela bermatzeko zer baldintza eta irizpide bete behar dituzten zehaztea.
- Kontserbazio- eta interbentzio-irizpideak zehaztea babestutako kultura-ondasunak zaharberritzean.
- Herri-administrazioei kultura-ondarearen esparruan dagozkien eginkizunak zehaztea.
- Pertsona fisikoek kultura-ondareari dagokionez dituzten eskubideak eta betebeharrak arautzea.
- Kultura-ondareari dagokionez, hura kudeatzeko eta esku hartzeko organoak erabakitzea.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Babestutako ondasunen jabe diren pertsona fisikoak eta juridikoak.
- Udalak.
- Foru-aldundiak.
- Herritarrak, oro har.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Ez da aurreikusten inolako finantza-eraginik.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko lehen seihilekoa.

19.- Agirien eta Agiritegien Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

a.- Izena: AGIRIEN ETA AGIRITEGIEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

EAEko enplegu publikoak pausoz pauso hurbilketa-prozesu baterantz aurrera egiteko oinarriak finkatzea, gobernu-maila bakoitzaren berezitasunak baztertu gabe.

**b.2.) Beste helburu batzuk:**

- Agirien administrazio-sistemak arautzea haien bizi-zikloaren etapa guztietan.
- Administrazioak sortutako agiri elektronikoen kudeaketa egin ahal izateko oinarri kontzeptualak eta teknikoak finkatzea.
- Euskadiko Agiritegien Sistema, hura osatzen dutenak eta kudeaketa-organoak erregulatzea.
- Euskadiko agiri-ondarearen babesa, zaintza eta hedapena erregulatzea.
- Herritarrek agiritegietako dokumentuak eskuratzeko eskubidea erregulatzea.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Herri-administrazioak, agiritegi-funtsen jabe nagusiak eta beren agiritegi-sistemen kudeatzaileak baitira (udalak eta foru-aldundiak).
- Agiritegien eta agirien jabeak. Bereziki, familiak, fundazioak, erakunde politiko eta sindikalak, enpresak eta elkarte zibilak zein erlijiosoak.
- Herritarrak, oro har, balio historikodun agirietarako sarbide librea bermatzen bazaie; hain zuzen ere, agiri horiek herritarren memoria pertsonal, familiar eta sozialaren zati dira.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Euskadiko Agiritegi Historikoa Bilbon abian jarri izanaren ondoriozkoa baino ez.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko lehen seihilekoa.

[20.- Kirol-lanbideak betetzearen gaineko Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.](#)

a.- Izena: KIROL-LANBIDEAK BETETZEAREN GAINEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

**b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:**

- Kirol-lanbide jakin batzuetan aritzearen funtsezko alderdiak antolatzea, berariaz zehatzuz zein diren lanbide horiek, haietan aritzeko izan behar diren titulu akademikoak adieraziz eta lanbide bakoitzari dagokion funtzio-esparru orokorra egokituz.
- Honako hauek kirolaren esparruko lanbideak direla onartu eta antolatu egiten dira lege honetan:
 - a) Gorputz Hezkuntzako irakaslea.
 - b) Kirol-monitore profesionala.
 - c) Kasuan kasuko kirol-modalitate edo -diziplinako entrenatzaile profesionala.
 - d) Kirol-zuzendaria.

b.2.) Beste helburu batzuk:

Erregulatzen diren kirol-lanbideetan dihardutenen zerbitzuak hartzen dituzten kirolariei zentzuzko babes emateko beharrezko neurriak antolatzea. Eta, alde horretatik, Legeak:

- a) Kualifikazio apalegia saihesten du, kirol-lanbideak titulu akademiko egokiak izatearekin lotzen baititu, eta, era berean, gehiegizko prestakuntza-eskakizunak ezarriz neurritz gain kualifikatzea ere saihesten du.
- b) Profesional jakin batzuek baimenik izan gabe beste lanbide bati dagozkion funtzioak betetzea eragozten du.
- c) Kolegiatzeko betebeharra ezartzen du, eta, horrenbestez, kiroleko profesionalak elkargo profesionalen diziplina-ahalmenaren mende jartzen ditu dauzkaten betebeharrak ez betetzeagatik.
- d) Profesional horien zenbait betebeharrak eta printzipio espezifiko zehazten ditu.
- e) Erantzukizun zibila ziurtatzeko betebeharrak ezartzen ditu.
- f) Kirol-ekipamenduetan eta zerbitzuak ematean titulazio egokiak eskatu ahal izateko aukera ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioei.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Herritarrak.
- EAEko Administrazioa (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila).
- Foru-aldundiak.



- Kirol-federazioak.
- Udalak.
- Sektorea ordezkatzeko duten elkargo-erakundeak.
- Kirolak irakasten dituzten ikastetxeak.
- Kirol-ekipamenduak eta -zerbitzuak kudeatzearekin zerikusia duten erakundeak.

c.- Finantzeta ustez izango duen eragina:

Aztartze-aldian zehaztuko da.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko lehen seihilekoa.



6. SEGURTASUN SAILA

21.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea aldatzeko Legea.

a.- Izena: EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN LEGEA ALDATZEKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Funtsean, honako hauek eragindako aldaketetatik eratorritako hobekuntza eta egokitzapen egokiak sartzea: Hauteskundeei buruzko Estatuko Oinarrizko Legeak, Alderdi Politikoen Legeak, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Legeak, Konstituzio Epaitegiaren jurisprudenziak eta hauteskunde-administrazioaren nahiz Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren gomendioek.

b.2.) Beste helburu batzuk:

Arlo tekniko, juridiko eta terminologikoan hobekuntzak egitea, artikuluetako zenbait alderdi zuzenduz, aipatutako legearen testua genero-hizkuntzara egokitzea, indarrean dauden terminoak erabiltzea (euroaren arloan, adibidez) eta abar.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Alderdi politikoak.
- Herritarrak, oro har.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

- Finantzetan eragina izango duela jotzen da, autonomia-erkidegoko hauteskundeetan ikusteko ezgaitasuna duten pertsonen bozkatzeko eskubidea erabil dezaten eta aldi baterako atzerrian bizi diren pertsonen postaz bozkatzeko duten eskubidea erabil dezaten beharrezko diren inprimaki ofizialak egin, baliozkotu eta banatzearen ondorioz.
- Halaber, finantzaketa behar da, kasuan kasu, bozketa-sistemekin proba pilotuak edo erakustaldiak egiteko eta boto-zenbaketa elektronikoko probak egiteko. Horrek izango duen kostua 60.000 eta 150.000 euro bitartean izan daiteke, erabilitako boto elektronikoko motaren eta proba egingo zaien hauteskunde-mahaiaren kopuruaren arabera.



d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.

22.- Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzeko legea.

a.- Izena: LARRIALDIAK KUDEATZEKO LEGEA ALDATZEKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Babes zibilerako eta larrialdietarako EAEko sistemaren zenbait alderdi eguneratzea; besteak beste: erakundeen eta zerbitzuen jardueren arteko hitzarmena eta erlazioa sendotzea, gizarte-ekimenaren rola sustatzea, maila publikoarekin duen osagarritasuna aitortuta...
- Indarrean dagoen erregulazioak dituen hutsuneak betetzea; besteak beste, aurreikuspenaren eta alertaren antolamenduan, herritarren eskubide eta betebeharretan, norberaren babeserako betebeharretan eta zigor-erregimenean.
- Lege honetan proposatutako aldaketaren xedea ez da larrialdiak kudeatzeko sistemaren funtsezko oinarriak aldatzea, finkatzea baizik.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Herritarrek arriskuei eta haien aurka babesteko neurriei buruzko prestakuntzaren eta informazioaren inguruan dituzten eskubide eta betebeharrak arautzea; aldi berean, herritarrak larrialdiei aurre egiteko bitartekoetan inplikatzeko saiatzea.
- Norberaren babeserako eskubide eta betebeharrak erregulatzea, bai eta betebeharrak horiek betetzea sustatzeko bitartekoak eta, hala egokituz gero, arriskuak areagotzen dituzten pertsona edo enpresek arrisku horiek eragindako karga publikoei egiten dieten ekarpena erregulatzea ere.
- Larrialdien kudeaketarekin eta babes zibilarekin lotzea elementu ahulak dituztelako edo arriskutsuak izan daitezkeelako segurtasunerako garrantzitsuenak diren erakunde publiko eta pribatu guztiak.
- Aurreikuspen- eta prebentzio-mekanismoak indartzea, alerta-sarea sortuz.



- Larrialdietarako eta babes zibilerako egiturak eta zerbitzuak legez indartzea. “Babes zibila eta larrialdiak” eskala sortzea eta agintari publikoaren maila ematea larrialdietako operatiboak koordinatzen dituzten larrialdietako eta babes zibileko langileei.
- Sarien eta aintzatespenen araubidea erregulatzea babes zibilaren eta larrialdien esparruan.
- Tipikotasun-printzipioarekin bat datorren zehapen-araubide bat arautzea, norberaren burua babesteko betebeharrak ez betetzeagatik, asmo txarreko alarmengatik eta abarregatik zehapenak ezarriko dituen.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Enpresak eta herritarrak oro har.
- Sektoreko profesionalak.
- Suhiltzaile-kidegoak.
- Babes zibileko boluntarioak.
- Funtzionarioak.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Finantza-eragin mugatua, legearen aldaketek, hasiera batean, ez dakartelako berekin arau honen onarpenaren ondoriozko kostu egiaztagarririk.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.

23.- Suteen Prebentzio eta Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak Arautzeko Legea.

a.- Izena: SUTEEN PREBENTZIO ETA ITZALKETA ETA SALBAMENDU ZERBITZUAK ARAUTZEKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Indarreko 1/1996 Lege, apirilaren 3ko, larrialdiak kudeatzeari buruzkoan, IV. kapituluan, suteen prebentzio- eta itzalketa- eta salbamendu-zerbitzuak erregulatzen dira, bai eta haietako kideen estatutu-araubidearen espezifikotasunak ere, baina hori



guztia hitz gutxitan egiten da, eta soil-soilik aipatuz haien funtzioei eta oinarrizko jarduera-printzipioei buruzko alderdi nuklear batzuk eta haietako funtzionarioen estatutu-araubideari buruzko zenbait espezifikotasun.

Ekimen honen xedea da Euskadiko suteen prebentzio- eta itzalketa- nahiz salbamendu-zerbitzuen legezko erregulazioak lege-esparru espezifiko bat izatea, zerbitzu horien eta haietan diharduten langileei aplika dakiekeen araubidearen oinarrizko konfigurazioa jaso dezan, horrelako zerbitzuak dituzten EAEko administrazioekin itundu ondoren prestatuta.

Horretara, suteen prebentzio- eta itzalketa- nahiz salbamendu-zerbitzuak berezko lege batek erregulatuko lituzke, eta ez, partzialki gainera, orotariko arau batek, halakoa baita larrialdien kudeaketari buruzko legea, gehiago jasotzen dituelako larrialdietako plangintzarekin eta operatibitatearekin zerikusi handiagoa duten gaiak, haietan esku hartu behar duten baliabide zehatzen antolaketa baino. Izan ere, larrialdietan esku hartzeko funtsezko zerbitzuei buruzko arau horretan suhiltzaileei dagokiena baino ez da erregulatzen, eta gainerako zerbitzuek zein bere araudia dute: poliziak, osasun-zerbitzuek eta abarrek.

Erregulazio-erronkari aurre egiteko, lantalde bat osatuko da suteen prebentzio- eta itzalketa- nahiz salbamendu-zerbitzuetako buruekin erregulazio komun horren edukia ituntzeko.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Zehatzago adieraztea suhiltzaile-zerbitzuen zer-nolakoa eta haiei egokitutako eginkizunak, gaur egun benetan ematen dituzten zerbitzuetara egokituta.
- Zerbitzu horiek autonomia-erkidegoko lurralde osoan zentzuz, osorik eta egokiro emango direla ziurtatzea, estalduraren hedadura eta gutxieneko mailak bermatuz, eta berme hori benetan gauzatzeko zenbait aukera emanaz elkartasun- eta lurraldearen oreka-printzipioen arabera, bitarteko pertsonal, material eta teknologikoei errendimendu handiena aterata.
- Oinarrizko irizpide eta gidalerro homogeen batzuk ezartzea, toki-autonomia ezertan gutxitu gabe, zerbitzuen antolaketari, funtzionamenduari, egiturari eta gutxieneko hornidurei dagokienez, haien operatibitatea eta kalitatea hobetu ahal izateko, eta, azkar nahiz eraginkorki erantzutearren, zerikusia duten administrazio guztien arteko lankidetzaren instrumentala, laguntza eta babesa sustatzeko.
- Langileen prestakuntzaren homogeneizazioa sustatzea, hala nola langileek erabilitako mota guztietako ibilgailu, tresna eta lanabesek nahitaez bete beharko dituzten gutxieneko baldintzena, suhiltzaile-zerbitzuen artean eta larrialdietako oinarrizko beste zerbitzu batzuekin lankidetzan aritu ahal izateko.



- Zerbitzu horietako enplegatu publikoen estatutu-araubidearen espezifikotasunak erregulatzea, hala nola sartzeko eta barne-promoziorako arauak, prestakuntzarakoak eta bigarren jarduerari edo diziplina-araubideari buruzkoak; gainerakoan, Euskadiko herri-administrazioetako funtzionarioen legedi erkidera joko da.
- Alde horretatik, langileek suhiltzaileak C-1 taldean birsailkatzeari buruz egindako errebindikazioa onartzea, Eusko Legebiltzarrak onartutako legez besteko proposamena kontuan hartuta.
- Zerbitzuak suhiltzaile-parkeetan denbora partzialean emateko aukera aurreikustea, kasuan kasuko zerbitzuak hala erabakiz gero.
- Enpresako suhiltzaileen eginkizunak eta prestakuntza erregulatzea.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Suhiltzaile-zerbitzuak dituzten herri-administrazioak.
- Suhiltzaile-kidegoetako funtzionarioak.
- Enpresako suhiltzaileak dituzten enpresak.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Ez da uste finantzetan eragin zuzena izango duenik.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko bigarren seihilekoa.

[24.- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea.](#)

a.- Izena: JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS JARDUEREN LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Ikuskizun eta jolas-jarduerei buruzko legedia ez da mugatu behar halakoetarako segurtasun-baldintzak ezartzera; babes-beharra duten bestelako interes publikoak ere aintzat hartu behar ditu, hala nola, osasungarritasun- eta higiene-



bermeak, ingurumena eta kultura-ondarea babestea, gutxitasunak dituzten pertsonak integratzea, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren kalitatea sustatzea, atsedeen hartzeko eskubidea edo haurrak eta gazteak babestea.

- Orobat, jendaurreko ikuskizunekin eta jolas-jarduerekin lotura duten askotariko pertsona moten eskubideak eta betebeharrak indartu edo argituko dituzten legezko neurriak sartuko dira jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren araudira. Ikusleei, erabiltzaileei, antolatzaileei, artistei eta jarduera horretan diharduten langileei buruzko neurriez gain, legeak kontuan hartu behar ditu jarduera horiek egiten diren lekuetatik hurbil bizi diren eta, horrenbestez, albo-ondorio kaltegarriak jasan ditzaketen pertsonak, aisialdirako eskubidea eta atsedenerakoa orekatuz.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueren katalogoan jasotzea indarrekoan jasota ez dauden haien zenbait adierazpide garaikide, eta administrazio-eskumenen banaketa errealitate berri horietara egokitzea, subsidiarotasun-printzipioa aplikatuz, herritarrengandik hurbilen dauden administrazioek beren gain har dezaten jarduera horien kontrolaren ardura, horretarako bitartekoak eta baliabideak dituzten neurrian.
- Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseiluan jendaurreko ikuskizunetan eta jolas-jardueretan tartean izaten diren gizarteko sektore guztien ordezkariak lekua egitea.
- Lokal jakin batzuetan sarbidea eta edukiera kontrolatzeko sistemak eta zainza-zerbitzuak eskatzeko aukera aztertzea.
- Lurralde- eta hirigintza-plangintzarako gaitasuna zehaztea, jendearentzat irekitako espazioak eta establezimenduak toki egokietan izango direla eta irisgarritasun segurua izango dutela bermatuko duten zehaztapenak ezartzeko.
- Jendaurreko ikuskizunei, jolas-jarduerari eta haietarako erabiltzen diren establezimenduari buruzko administrazio-kontrolerako araubidea egokitzea, aurretiazko administrazio-kontrolak sinplifikatuz txikia bada pertsonen eta ondasunen segurtasunean, ingurumenean, kultura-ondarean edo beste ondasun juridiko batzuetan izan dezaketen eragina, eta areago nabarmenduz antolatzaileen betebeharrak eta administrazio-kontrola zein -ikuskapena egiteko aukerak.
- Ikuskapenen eta zigorren araubidea egokitzea, eta bestelako tipifikazio eta zigor-neurri eraginkorragoak aurreikustea; eta espedientea hasi aurreko edo berehalako behin-behineko neurriak arautzea.

**b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:**

- Aisialdi eta ikuskizunak eskaintzen dituzten enpresak.
- Herri-administrazioak.
- Herritarrak, oro har.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Ez da uste finantzetan eragin zuzena izango duenik.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko lehen seihilekoa.

25.- Poliziaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskadiko poliziari buruzko arautegia gizartearen egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzea, proposatzen den polizia-ereduan sakonduz: komunitarioa eta herritarrei zerbitzua emateko hurbila.

Horretarako, prozedura azkarrak eman behar zaizkio Ertzaintzari, une eta leku bakoitzean ondo baino hobeto bete ditzan polizia-zerbitzuaren beharrak, betiere haiek bateragarriak izanez gero funtzionarioen eskubideen bermearekin, eta, era berean, mekanismo egokiak aurreikusi behar dira polizia-zerbitzuaren efikazia eta eraginkortasuna zaintzeko, eta Ertzaintzaren jarduera inpartzialki ikuskatzeko legez aurreikusitako kasuetan.

Erreforma horien eta indarreko ordenamendu juridikora nahiz jurisprudentziarik berrienera egokitzeko beharrezkoak diren beste batzuen norainokoa eta egungo Poliziaren Euskal Autonomia Erkidegoko Legea behin eta berriz aldatzen den testu bat izatea kontuan hartuta, komeni da beste lege-xedapen baten testua prestatzea, testu arau-emaile bakar batean jasotzeko Euskadiko Poliziaren erregulazioa, haren antolaketari, jokaera-printzipioei eta kideen araubide juridikoari dagokienez.

**b.2.) Beste helburu batzuk:**

- Sartzeko baldintzak lege formal batean erregulatzea. Aukeraketa-organoen inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta espezializazio-bermeak nahiz emakumeen eta gizonen arteko oreka areagotzea.
- Eragin positiboko neurriak hartzea, emakumeak polizia-kidegoetan sar daitezten. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren egitura soiltzea, eta Administrazio eta Zerbitzu Zuzendaritza kentzea.
- Barne-sustapeneko prozeduretan parte hartzeko hiru deialdiko muga kentzea. Benetan betetako lanpostuari edo funtzioei dagozkien ordainsariak jasotzeko eskubidea aitortzea zerbitzu-eginkizunak betetzen dituztenei.
- Bigarren jardueraren kasuan bezala, eritasunagatik, istripuagatik edo adinagatik fisikoki edo psikikoki eragindako funtzionarioen osasuna babesteko neurriak indartzea.
- Diziplina-erregimena eguneratzea.
- Udaltzainek beren udalerritik kanpo jarduteko aukera ematea, toki-agintariak babesteko; era berean, kidego horien lanbide-egiturari buruzko beste alderdi batzuk eta legezkoak diren beste zeregin batzuetan dihardutenak, hala nola, besteak beste, udal-zaintzaileak eta mugikortasun-agentek.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Euskadiko Polizia-funtzionarioak.
- Euskadiko Polizia-kidegoak dituzten herri-administrazioak.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Finantza-eragin mugatua, legearen aldaketek, hasiera batean, ez dakartelako berekin arau honen onarpenaren ondoriozko kostu egiaztagarriak.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko lehen seihilekoa.



7. OSASUN SAILA

26.- Adikzioen Legea.

a.- Izena: ADIKZIOEN LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Adikzioei buruzko euskal politika eguneratzea, gizarte-errealitate berriak eta kontsumo-joera berriak kontuan hartuta; politika hori, gaur egun, 18/1998 Lege, ekainaren 25eko, droga-menpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoak arautzen du. Era berean, ikuspuntua zabaltzea, mota guztietako adikzioei aurre egiteko.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Prebentzioaren eraginkortasuna optimizatzea eta bizimodu osasungarria sustatzea.
- Arriskuak eta kalteak gutxitzeko politiketan aurrera egitea.
- Araudia gure inguruko araudien eta estrategien aurrerapen eta bilakaerara egokitzea.
- Aurrera egitea drogak hartzen dituzten pertsonen eskubide eta betebeharretan.
- Gizarte zibilaren eta herritarren konpromisoa sustatzea eta haiek adikzioen arloko politiketan parte hartzera bultzatzea.
- Eskumen- eta erakunde-eremuen ardurak zehaztea, eta arkitektura instituzional, parte-hartzaile eta koordinatzailea egokitzea.
- Arreta berezia jartzea errealitate jakin batzuetan:
 - Alkohola eta adingabekoak.
 - Substantziarik gabeko adikzioak.
 - Genero-ikuspegia.
 - Ebidentzia zientifikoa oinarritutako tratamendu berriak.
 - Komorbilitatea.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Herritarrak, oro har.
- Adikzioen esparruan lan egiten duten gizarte-taldeak.



c.- Finantzeta ustez izango duen eragina:

Lege hau aplikatzean ezarriko diren prozesuetatik eratorriak.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2014ko bigarren seihilekoa.



8. INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

27.-Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko Lege Orokorra.

a.- Izena: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMENA BABESTEARI BURUZKO LEGE OROKORRA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Ingurumen-esparruan eta oinarrizko legedi moduan, Europar Batasunak eta Estatuko Administrazioak onartutako zenbait testu arau-emailetan finkatutako aginduak jasotzea.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioari buruzko erregulazioa egokitzea, bai prozedurak bai prozedura bete behar duten planak, programak eta proiektuak berrikusiz.
- Informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikorako erregulazioa egokitzea; kontu hau bereziki garrantzitsua da kontuan hartzen bada herritarrak ingurumenagatik kezkatuta daudela.
- Gai berriak jasotzea ingurumenaren babes-esparruan; adibidez, argi- eta usain-kutsadura.
- Administrazio-simplifikazioa irizpide moduan hartuta, Administrazioak esku hartzeko prozedurak erregulatzeko, eta proiektuak nahiz jarduerak errazago abian jartzeko aukera ematea, ingurumenaren babesari kalterik egin gabe.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Sektore pribatua (egitasmo-sustatzaileak).
- Sektore publikoa (ingurumen-esparruan eskudunak diren herri-administrazioak, eta planen nahiz programen sustatzaile moduan).
- Elkarte eta entitate pribatuak (ekologistak, kontsumitzaileak, enpresa-erakundeak eta abar).

**c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:**

Ingurumen-prozedurak administrazio-kargak gutxituz sinplifikatzeak mesede egingo dio jarduera ekonomikoari, produkzio- eta zerbitzu-jarduera berrien ezarpena bultzatuko duelako, eta eragina izango duelako enpleguaren eta aberastasunaren sorreran.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015eko bigarren seihilekoa.

28- Lurzoruaren Kutsadura Ekidin eta Zuzentzeko Legea.

a.- Izena: LURZORUAREN KUTSADURA EKIDIN ETA ZUZENTZEKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

Otsailaren 4ko 1/2005 Legea egokitzea, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpeneko prozedurak arintzeko xedarekin.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Berriz zehaztea zer kasutan aplikatu behar diren lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedurak, betebeharrak malguagoak ezartzea lurzoria kutsatzeko arrisku txikiagoa duten jardueren gainean eta lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedura sinplifikatzea.
- Lurzoria kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak zehazki mugatzea eta lurzoria kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoria kutsatutzat hartzeko irizpideak eta estandarrak xedatzeko urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren edukira egokitzea haiei buruzko eranskina.
- Otsailaren 4ko 1/2005 Legeko eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuko prozeduren eta hirigintza antolatzeke tresnak onartzeko prozeduren arteko harremanaren ondoriozko arazo praktikoak ebaztea.

b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:

- Sektorre pribatua: lurzoria kutsa dezaketen jardueren titular diren enpresak eta partikularrak.
- Partikularrak: lurzoria kutsa dezaketen jarduerak egon diren lurren jabeak.

**c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:**

Lurzoruaren kalitatearen ingurumen-kontrola egiteko prozedura berriek (nagusiki, lurzoruaren erabilerarako gaitasun-adierazpenak eta lurzoruaren kalitatearen adierazpenetik salbuesteko prozedurak) administrazioaren esku-hartzea gutxitzeko aukera desiragarria emango dute lurzoru kutsatuen alorrean, bai eta ingurumen-kalitatean estandar zorrotzak izateko aukera ere. Gaiarekin zerikusia duten eragile guztien artean 2013tik 2040ra bitartean 100 milioi euro baino gehiago aurreztuko direla kalkulatu da.

Administrazio-tramitazioan aurreztuko den diruaren eta denboraren ondorioz, legearen aplikazioak industria- eta zerbitzu-sektoreen lehiakortasunean eragin onuragarria izango duela pentsatu da.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015ko lehen seihilekoa.

[29.- Portuen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea.](#)

a.- Izena: PORTUEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEA.

b.- Proposatzen den erregulazioaren helburua, eta gizarteko zein arlori eragingo dion, halakorik gertatzen bada:

b.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- Autonomia-Erkidegoaren titulartasuneko portuen erregulazio osoa, portu-eremuaren lurralde- eta hirigintza-antolaketa eginez, portu-plangintzarekin beharrezko lotura gauzatuz eta euskal titulartasuneko portuak ustiatuz eta eraikiz.
- Portu-jabari publikoaren kudeaketa mugatzea.

b.2.) Beste helburu batzuk:

- Portuetako zerbitzu-aldean onartutako jardueren, instalazioen, eraikuntzen eta erabileren erregulazioa.
- Portu-zerbitzuak emateko araubidearen erregulazioa.
- Zehapen-araubidea ezartzea, hala nola EAEko Portu Administrazioari dagozkion ikuskatze-, zaintze- eta polizia-ahalmenak.

**b.3.) Eragindako gizarte-sektoreak:**

- Gipuzkoa eta Bizkaiko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko ganberak.
- Kofradiak.
- Arraina ekoizten eta merkaturatzen duten elkarteak.
- Itsas Industrien Elkartea eta ontziolak.
- Lanbide-elkargoak.
- Sindikatuak.
- Itsasketa-eskolak.
- Itsas klubak.
- Erabiltzaile Federazioak.
- Tokiko kostaldeko administrazioa.
- Herritarrak.

c.- Finantzetan ustez izango duen eragina:

Finantza-eraginak urraketen aurka erabil litekeen zehapen-araubideari lotuta egongo litzateke, hala nola portu-administrazioak jasotako tasei lotuta. Baina azken horrek lotura handiagoa du tasei buruzko legearekin, eta haren aldaketa bat Portuen Legean sartu ahal izatearen mende egongo litzateke.

d.- Legebiltzarrera bidaltzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

2015ko lehen seihilekoa.

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2013ko ekainaren 27an.